

## SED SATIATA

*Argiek irekitako  
zaurietatik  
arno a dario  
gauari.*

(Luigi Anselmi)

*Gutuna ibai ertzeko makaldian aurkitu zuten, haizeak eraman ez zezan-edo, ardo botila bustu bat gainean zuela. Azalean izen bat: PoLi. Barnean, eskuartean dituzun horri hauek. Alboan, basa arrastoz zipriztindutako zapata pareak. Makal beltzetik berrogeita hamarren bat metrotara azaldu zen gorpua, puztua, ibaiertzeko sastraketan katigatua. Jakaren ezker poltsikoan paper tolestua, tinta ezabatuxea: "Hiru mila zorri zuentzat. Haizerik ez den urtera arte!". Aurpegiak ez zuen ez izu, ez sufrimendu itxurarik, lasaitasunak janzten zuen, amaren magalean lo-kuluxka goxoan dagoen haurraren antzera.*

\* \* \*

Azken ordu hauetako minutu luzeak amaitzera doazkigula, zor dizudan begiruneak bultzaturik, nire esker ona agertu nahi nizuke, tristezia zorion eta zoriona tristezi une berean bihur daitekeenean. Zure izaeraren antzeko hitz beroez agurtu nahi zintuzket gaur gauez, jainkoen opari eta gizakiaren sormena zaren hori.

Mahatsondoan ezkutatutako jainko misteriotsua, nork ez zaitu ezagutzen? Zu eta ni, ni eta zu, borrokalari lagunak, aurrez aurre, biok, berehala aixkiratzen ikasitako borrokalariak. Zenbat lan eta eguzki daramazun bizkarrean! Eta ordainean, zure barne-indarrak neke hori desagertu arazi eta aurrerako bidea eskaintzen jakin du. Zure poztasun sakonak! Zu bakarrik geratzen zatzaizkit gaur, bihurrik gabeko lagun fidel. Gerizpearen antzekoak izan baitira beste guztiak, eguzkia dagoen bitartean jarraitzen zaituzten horietakoak.

Jakintsuek magalean hartu zaituzte, euren ahotan pausatu, hizpide, Estrabonen hitzetan, Ateneo egiptoarrarenetan, Apolodoro medikuaren gomendiotan, Plutarco eta Herodotoren berba ahaztu ezinetan... Zu, jaiotza, bizitza eta heriotzaren une garrantzitsuetako gonbidatu nagusia.

Makal beltz honen petik ostarte handi bat dakust eta izarrak gertuago ageri zaizkit orain, txikiak beren handitasunean. Gaueko gauzak izan dira, ia denak txikiak eta isilak, ezer berezirik adierazten saiatu gabe, nigan zirrara sortu izan dutenak. Orain, ordea, begi ireki hauek ez dakite ingurua irakurtzen.

Mahatsondoaren barneko jainko misteriotsua, estutu barik lotu ninduzun laguna, bizitzak derrigortutako nekean jardun ondoren datorrenari jarrai iezaiozu ongiertoria ematen. Haizeak eta nekeak eraginda gogortutako marineleri laztan iezaiozu eztarria itsasotik leher eginda datorrenean. Egun guztian egin duen bidea begitatzeko asmoz atzera begiratu duen ibiltariari goza iezaiozu begirada.

Eta gaur... erabakia, azken erabakia gaur. "Atzo," "bihar," sufriarazteko asmatutako hitzak. Eta hala ere, bada erlojua katez lotzen duenik, denborak ihes egingo diolako beldur denik. Haririk gabeko jostorratza oihalean pasa eta pasa jarraitzeko denbora joan zait.

Bazoazkit zu ere, eztarrian behera, eta zure akaberak poztasuna dakarkit. Urdailean garunean bezainbateko kilika egin didazun hori, barrirudia nahiz negarraldia egiten lagundu dida-

zun lagun hori. Begiak distiraz ditut, bustiak agian, poztasunak eta tristeziak janzten baitizkit. Nekatuta nago, baina ez naiz negar egiten ahaztu zaion horietakoa.

Esperantzaren zelaian erretena ireki dut, eta nekea azaldu zait. Hitz hauek idazteari utzi beharko niokeela otu zait, baina zure indarrak biziagotu eta jarraitzera bultzatzen nau oraindik. Mantso jarraitu nahi nuke, lerro oker hauei, ele trakets hauei, atzamar tartean trabatzeko betarik eman barik.

Baina... zein beldurgarriak diren, halaber, zure bat-bateko sorginkeriak. Eta halere, kendu didazuna baino gehiago da eman didazuna. Mailu bakar batez joak gara. Maitasuna eta gorrotoa lerro ikusiezinak aldentzen edo, agian, batzen baititu. Argiak gerizpea baitarama berarekin. Eskain ieazakiozu zure sorginkeri beldurgarriak maitasunik gabe laztantzen zaituenari; sorginkeri eztiak eskaini, ordea, zure barneko kantua entzuten dakienari.

Mahatsondoaren izerdian ibiltari zabiltzan jainko misterio-tsua. Erruki zaitez zure izena pozoi bilakatzen duten mingain arinen arimaz. Belearen elea. Jainkoek gizakiari eskainitako opari zara, bizitzaren garraztasuna leuntzeko sortua. Akaso Bako gizakiaren behar materialetatik sortua da? Akaso Diunisiusik gabe gure bizi-filosofia berdina zatekeen? Gizakiaren egintzetatik desagertuko bazina, osasun nahiz adimenean hutsune handi bat irekiko litzateke, eza, gabezia. Eta hori zuri atxikitzen zaizkizun gehiegikeri eta desbideratze guztiak baino beldurgarriagoa litzateke. Itsasoko urak kalte egiten dio gizakiari, on, berriz, arrainari. Zikutak kalte egiten dio gizakiari, eta on galeperrari. Beltzek zuriz margotzen dituzte etsaiak.

*Bilintx eta balantx* heldu naiz honaino, zure laguntzarekin. Une bateko zorionak mozkortu nau. Eta sentimen kontrajarriek harrapatzen naute zirraren sarean. Zoriontsu nagoenean, zoriontasuna galduko dudan usteak sufriarazten nau, eta une berean poetaren hitzak ditut kolkoan, “*maite zaitut zorion, inun ez zeralako, ezer ez zeralako, amaitzen zeralako, edozein gauerditan kale baten ertzean...*”

Pixkanaka, urak lo hartu du ibaiaren magalean. Zatoz, egiozu azken azkura nire eztarriari. Ilargiak ere ibai erdia edan du. Atzo baino puztuago dakust ibaiaren besoetan lo-kuluxkan geratu denean.

Agian, benetan isiltzeko ordua heldu zait. Hitza zilarra omen; urrea, ordea, isiltasuna. Nekostak eta liliak aske dira gizakien irudian. Lehenak, ehun esku eduki arren, ezer ez duelako hartzen; bigarrenak, hamar mihi eduki arren, sekula hitz egiten ez duelako. Zerbait esateko ba ote dut! Irabaziko al du munduak zeozer hemen egon garelako? Galduko al du zerbait gu joatean? Ezjakintasuna, ilargirik eta izarrik gabeko gau iluna.

Euriak bezala, denborak ere zuloak egiten ditu lurrean, eta bertara bultzatzen gaitu. Baina bitartean...

Utz ezazue gizakia zeruko alaitasunak imajinatzen!

Utz ezazue tristeziak ahaztu eta pozak ospatzen!

Utz ezazue Phantasus-en besoetan erori eta amets egiten!

Hutsik zaude, ontzia, zure azken lurruna, lausoa, muxar nire gogoan. Indarge dut gogoan uztaiarri hasiera berriro topatzeko. Nik ere ibaiaren magalean leku hartu eta musu eman nahi nioke lo-kuluxkan ageri den ilargiari.

Sinatua: *Charles Bordele*

*Joxemari Urteaga*